

**R. M. AZKUE: CANCIONERO POPULAR VASCO  
HIRUGARREN BERRARGITARRAPENAREN  
AURKEZPENA**



## **RESURRECCION MARIA DE AZKUE: CANCIONERO POPULAR VASCO**

*Bilbo, 1990-VII-11*

*Fco. Olarreaga  
Iberduerokoa*

Azkue-ren bilduma ezagun hau hirugarren aldiz argitara eman den honetan, Euskaltzaindiaren eskutik Iberduero ere tarteko izatea, bertako lankideontzat gertakizun pozgarria dela, adierazten dizuet.

Batez ere euskaldun garenoi, bi liburuki lodi hauen orriak banan-banan aletzean, hainbat aldiz hasten zaigu gure barrena bustitzen bezala. Hor baitago geure sehaskaren kulunkari hitza eta doinua eman zion zenbait kanta.

Gure sehaska eta haurtzaroa dagoeneko antzina direla esango du norbaitek. Eta izango da gainera esango duenik, ea zer egiten duen Iberduero-k iraganeko kantak eta kontuak biltzen eta argitaratzen dituenari laguntzen. Hona hemen nere erantzuna.

Iberduero gehien bereizten duena, sortu zenetik gaurdainoko bidean, teknikarik aurreratuenak erabiltzea da elektraindarra sortu eta banatzeko. Azken orduko baliabiderik berrienen bila dabil beti Iberduero, bere bezeroei behar duten argindarra ta beroa eskaintzeko.

Kanta zaharrak bildu eta argitaratzea ez ote, alderantzizko zerbait?

Iberduero-n lan egiten dugunok besterik uste dugu: azkenengo teknikabiderik aurreratuenak asmatu eta erabiltzeko kemena ematen diguna, azken batean, gau hotzean argia eta beroa behar dituzten amari eta haurrari zerbitzu hobea eskaintzea baita. Baina amak eta haurrak, gure eskutik datorkien argiberoa bezain beharrezkoak dituzte, beren buru-bihotzak argitzen eta berotzen dituzten kantak.

Eta beste horrenbeste esan dezakegu, gure bizitzako hainbat aldatari buruz: lanean edo jolasean ari garela, jaten edo ibiltzen, ... teknika dugu beharrezkoa, baina kantazeko gauza ez bagara, gureak egin du.

Iberduero-ren izenean, beraz, eskerrak bihotzez Azkue haundiari kanta hauek bildu zizkigulako, eta eskerrak orobat Euskaltzindiari, hirugarren argitarapen hau burutu duelako: lagungarri izango bai ditugu, teknikarekin batera, gure bizitzaren kantu-bidea eten ez baina, gogoratu eta geroratu dezagun.

Eskerrik asko.

